

# Intxaurrondo

**Z**aldi Urdina antzezlanaren berriki estreinatutako, gure lana eskainia izan da Luhuson, Angelun, Donostian, Azpeitian, Bilbon, Barakaldon... Plazaz plaza, lekuan-lekuan, ikusleek eskaini digute eserlekuak betetzea, ostatuan beraien istorioak kontatzea, barrukiak askatzea... aspaldian atera behar zena atera da. Honek osaba edo lehengusua galdu du gaindosiz, horren seme edo alabak droga arazoak dauzka, hark lagun artean familiako bizipenak partekatzen ditu.

Obra ez da gehiago gurea. Obra hau euskal komunitateak bereganatu du. Besarkadak, begi bustiak, hasperen handi bat, begiak urrunean galduak... Gure herriak ezagutu duen azken sarraskian, zenbat lagun, senide edo auzoko galdu ditugu? Droge eta haren albo-ondorioek zenbat pertsona erail dituzte? Zenbat milaka? Zenbat belaunaldi desagertu dira herrietan? Non gertatzen da min hau guztia?

Lana estreinatuta, artista edo antzerki taldeek egin ohi duten bezala, hasi naiz erakunde ezberdinekin biltzen. Eta euskal sortzaile bezala, are lan gehiago da, nola ez. Horretara dedikatu behar naiz, normala da. Diru publikoarekin lan egiten



Zaldi urdina antzezlaneko irudi bat. AINHOA RESANO

dudanez, gauzak aztertu, baloratu eta esplikatuta behar ditut. Egon naiz hainbat erakunderekin ikusten zer egin daitekeen euskal sorkuntzaren esparruan, eta zer gurekin. Saiatzen naiz esplikatzen diskriminazio positibo politika hil ala biziko hautu bat dela. Norberak bere herria eta herri

honetan dagoen jendartea maite duen heinean noski. Zertarako? Euskal sorkuntzak sufritzen duelako, eta urteetako gutxiesten jasan duelako. Kulturizidio antolatu eta zaharretari-ko bat European. Balio sinbolikoekin konpontzeak ez du balio. Minbizia ez da ibuprofenoarekin

sendatzen. Baina hurbilen dagoen instituzioak, babestu behar gaituen erakundeak beste norabait begiratzen du. Biluzik gaude borroka horretan. Haize erroten aurka borrokatzeko gazta puska bat eskuan. Sinatzen dugun hitzarmena diru poltsa sinbolikoetan geratzen da. Berdin dio, ahul, baina zertxobait lortu da, eta esku bat sorbaldan, errukiz begiratu eta agurtu; segi pixkor, kuraia on. Hala errango zieten itsasoa zeharkatzen zuten marinelei, mundua zabala eta krudela baita.

Ondoko egunetan joan behar naiz frantses kultura ministeriora. Ez dut berri onik ekartzen, lekuko hautetsiek doi-doi babes-ten gaituztelako. Asko preziazten dute gure lana, baina bihotzean ahalbideetan baino gehiago. Mi-

nisterioko arduradunak gure ikuskizuma ikusi du, frantses gain-idatziak zituen emanaldi solte batean. Preziatu du, baina eman dit aholku bat: eskaini behar genuke tarte bat antzezlanean azaltzeko zertarako euskaraz antzeztan dugun obra hau, zer garrantzi duen hizkuntzak gure antzerki eginkizunean...

Imajinatu dut antzerkilari aleman ospetsu bat, bere obra gelditzen, eta esplikatzen zertarako alemanez ari den, eta zein inportantea den antzezte Brecht alemanez. Ez luke zentzurik, oso argia delako. Edo publikoa barrez lehertuko zen. Euskaraz egiten dut mintzatzeko. Hau bezain sinplea da. Euskaraz, Intxaurrondo ez baita zuhaitz bat soilik. Ez. Mamu bat da. Tortura eta heroina zabaldu zuen mamu bat. Halloweeneko mamu guztiak baino beldurgarriagoa. Baina nola azaldu hori euskaraz ez den hizkuntza batean? Nola azaldu ehunka gorputz txikitua, milaka familia suntsitua, hitz bakar batekin? Euskaraz, minaren intxaurrak bihotzean ditu, erroturik.

Egon naiz Bordeleko Antzoki Dramatik Nazionalan, eta han ere interesa piztu da. Ez dakit antropologiagatik, edo estralurtar batentzat hartu nauteleko, baina interesa baten. Kasik interes zientifiko bat. Haren galdera, ohikoagoa izan da: baina, euskaraz arituz soilik, ez zara beldur hesteaz? Heste zergatik? Nire hizkuntzan nire komunitateari hitz egiten diodalako? Gureak diren historiak kontatzen ditudalako? Eskolako inongo liburutan agertzen ez den sarraskia kontatzen dudalako? Zer da irekia? Frantsesez hitz egitea antzokiko jauntxo mintzatzeko?

Antzoki horretako zuzendari artistikoa taula zuzendaria da, eta orduan interesatu naiz ni ere bere obrari. Zer plazaratzen zuen, ea uler dezekedan zer den irekia izatea. Zuzendari horrek amerikar antzezlan bat estreinatuko du urtarilean, Trumpen iruzurkeria azaleratzeko. Antzezlan Alemanian kokatzen da, Bigarren Gerla Mundiala baino lehen. Pertsonaiek ez dute sinesen Hitlerrek boterea hartuko duenik; hori da abiapuntua. Hots, zerbait oso urruna Bordele-lik, nire itxieratik ulertzen dudanez. Orduan, Bordelen ez dute beste arazorik? Benetan?

Uste dut errealegiak garela, haientzat ez gara existitzen, eta hobe horrela. Ipar afrikarrak bezala. Baina tamalgarriena, ipar afrikarrek bezala, guhaurrek balio horiek eramatea da, kolonizatu pentsaera transmitituz, belaualdiz belaualdiz.

Gure obrak askotan epeltzen ditugu parekoa izutzeko beldurrez. Gure artea azken zokoan mantenduz politika publikoetan, pentsatuz bidegintzak edo teknologia berriek gure arteak baino garrantzi handiagoa dutela. Baina gure artea, gure memoria balitz, gure komunitatearen ura, lehorteari usatu gara. Gureak merezi du, gure historiak, gure lagunak, gure familiak, gure auzokoe eta lehengusuek merezi dute existitza. Izen-abizenekin. Goazen plazatik plazara, gurea den lekua hartzera, eta ospatu dezagun bizirik irauteko dugun gaitasuna eta poza.

Bizirik gara, elkartzen gara, eta gure urak intxaurrondoan itzala lorez estaliko du.



LAUHAZKA  
Ximun Fuchs

## berria denda

Eskuratu  
2020ko  
BERRIA  
agendak!

Bi eredu  
aukeran!



19,2 x 22,2 cm

BERRIAren  
ohiko agenda  
Asteko ikuspegia


14 € bl 12 €



17 x 23,7 cm

Eider Eibarren  
azala duen  
agenda  
Eguneko ikuspegia

13 € bl 11 €



BERRIA laguna bazara, egin eskaria  
eta etxera bidaliko dizugu

Berria.eus/berrialaguna/denda • 943-30 43 45

berria  
mundua euskarari emana